

APARTEKO ORDUEI DAGOKIENEZ, ZER DA KONTUAN HARTZEKO GARRANTZITSUA?

Argitaratutako azken epaiek baliogabetu egiten dute lanaldi osorako kontratuen orduen erregistroa, baina orduen erregistroa mantentzen dute lanaldi partzialeko kontratuetan.

Ilido horretan, interesgarria da aparteko orduei dagokienez honako puntu hauek ezagutzea:

- Debekatuta dago aparteko orduak sartzea gaueko aldian, araudiaren arabera luzatutako lanaldi berezietan izan ezik edo beharrezkoa bada aparteko eta premiazko ezbeharrak edo beste kalte batzuk saihesteko eta konpontzeko.
- 18 urtetik beherakoek debekatuta dute aparteko orduak sartzea.
- Horiek zenbatzeko, egunez egun egin behar da langile bakoitzaren lanaldiaren erregistroa, eta soldatak ordaintzeko finkatutako aldian metatuko dira guztiak; soldataren agiriarekin batera eman behar zaio langileari laburpenaren kopia bat.
- Langileen ordezkariak eskubidea izango dute enpresariaren eskutik hilero langileek sartutako aparteko orduei buruzko informazioa jasotzeko, ordaintzeko modua edozein dela ere, eta helburu horretarako laburpenen kopia bat jasoko dute.
- Zerbitzua aparteko eta premiazko ezbeharrak edo beste kalte batzuk saihesteko edo konpontzeko beharrezkoa bada, esaterako, lehengaiak galtzeko arriskua badago, langilearen aldetik beharrezkoa izango da zerbitzua ematea, eta ordu horiek ez dira kontuan hartuko aparteko orduen urteko gehienezko mugarako.
- Aparteko orduak ekonomikoki ordainduko dira, edo atsedenaldiarekin konpentsatuko dira, itun indibidual edo kolektiboz.
- Aparteko ordu bakoitzeko jaso beharreko kopurua inola ere ezin da egon ohiko orduaren balioaren azpitik, edo ordaindutako atsedenaldi-denbora berberekin konpentsatuko dira. Puntu horretan itunik egon ezean, aparteko orduak egin eta hurrengo lau hilabeteetan atsedenaldia hartuz kitatu behar direla ulertu behar da.
- Langile bakoitzak egin ditzakeen aparteko orduen kopurua ezin da urtean 80tik gorakoa izan. Helburu horretarako, ez dira zenbatuko aparteko ordu gisa ordu horiek sartu eta hurrengo lau hilabeteetan atsedenaldia hartuz kitatutakoak. Muga hori ezin da aplikatu aparteko eta premiazko ezbeharrak edo beste kalte batzuk saihesteko edo konpontzeko egindako aparteko orduetan.
- Enpresako lanaldi orokorra baino lanaldi txikiagoa egiten duten langileek gehienez egin ditzaketen urteko aparteko orduen kopurua ere lanaldion hein berean gutxitu behar da.